

Proiektuaren deskribapena

GAMI - Jostailu Enpresa

Gure negozio-ideia jostailu fabrika batean oinarritzen da, eta gure produktuak gauar egungo haurrentzat diseinatuta daude. Helburua pantailaren aurrean denbora murriztea eta haurren garapen kognitiboa sustatzea da, jolas hezitzaileen bidez. Jostailuak birziklatutako materialez eginda daude, ekoizpen eta kontsumo arduratsua sustatuz (ODS 12). Hauek dira gure lehentasunak: garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua. Gainera, jostailuak hezkuntzarentzat kalitate handikoak dira, eta pentsamendu eta ikaskuntza garatzen laguntzen dute. Produktu nagusiak buru hausgarriak, abakoak, dadoak eta kuboak dira. Azken batean, haurren garapen kognitiboa eta pantailarik gabeko entretenimendua sustatzen ditugu, jostailu ekologikoak eskainiz.

